

**AITA-GUREA, AGUR MARIA ETA SALBEA ITZNEURTUETAN.**

**AITA-GUREA.**

¡Aita gurea, zero-goi eder  
Beticoetan zaudena!  
Erabill-beza doneki beti  
Mundubak zure *izena*:  
Zure *Errezuma* graziazkoa  
Betor gugana urrena,  
Egiñik berdiñ Zeru ta lurrik  
Zure *gogorik* onena

Eman-iguzu-gaur, bear degun  
Eguneroako *ogia*,  
*Zorrak* barkatu, gorde zordunai  
Gorde diegun legia;  
Ichi-zaiguzu erorikorroi  
*Tentazioko-bidia*;  
*Libra-gaitzetik*, emanik oso,  
Biotzetako pakia.

ALABIZ.

**AGUR MARIA.**

Agur, agur, Maria  
Graziaz betea  
Zorion andi dezu  
Jauna Zugantzea.  
Andre guztien onra  
Birgiñen lorea,  
Zure errayen frutuba  
Da Jesus maitea.

¡Birjiñ, Done Mariya,  
Jainkoaren ama!  
Nere beartasunak  
Zugana narama:  
Bada zure laguntzak  
Zerura darama,  
Ken-iguzu, il baño len  
Pecatuen zama.

ALABIZ.

**AGUR-ERREGIÑA EDO SALBEA.**

Agur Ama Birjiña  
Zeruko Erregiña,  
Agur, gure bizitza  
Uste ta atsegíña,  
Errukizko jargoya,  
Gure poz-erpiña,  
Egiñ-gaitzatzu zure  
Mesedeen diña.

Erbestetuta gaude  
Eba-ren umiak  
Deyezka zuri, alcharik  
Biotz ta begiak,  
¡Ibar negarreskoan  
Ona-emen utziak!  
Zu-opa-zaitu gure  
Arnas-inziriak.

¡Ea bada! zerala  
Gure bitarteko,  
Itzul-gugana, errukiz  
Gu begiratzeko;  
Egiñ gero mesede  
Jesus ikusteko,  
Zure fruitu eder ori  
Beti maitatzeko.

Birjiña Ama Maria,  
On da biotz bera,  
Atoz, bai, atoz, arren,  
Gu salbatutzena:  
Segurki, guregatik  
Zuc erregutzera,  
Kristoren aginduben  
Diña egingo gera.

ALABIZ.

J. IGNACIO ARANA. J. L.<sup>ak</sup>